

SUIZA'KO TURISMOA (II)

AIENGANDIK IKASI BEARREZKO GAUZA GEIAGO

Suizarren garbitasuna eta txukuntasuna arritzekoa da. Bertako jendearen errespetua ere ezta gutxiagorako. An beti oñezkoeri ematen zaie aurretasuna. Señalatura egon edo ez egon, kamiñora ateratzen bada oñezkorik, autoak gelditzen dira, oñezkoari pasatzen utzi arte. Emen gutxitan gertatzen dana.

Fabrikak emen baño geiago dira, baña ezta kale zikiñik ikusten, ezta ibai likitsik ere. Errietako WC-ra sartzen bagera, geure etxekoa bezin garbia billatuko degu.

Arritzekoa bada ere, arritu bear ez giñana, oraindik geiago esan nezake: Müren erritikan Schilthorn mendira joan giñanean, bi milla metrotik gora ere, konturatu giñan, bidetxiurrietan, papelerak jarriak zeudela, pape-
rak lurrera ez jaurtzeko.

Lorentzako duen maitasuna berri, paregabea da. Sarri bertako egutegi ederretan ikusi izan ditugun bezelakoa da.

Interlakengo kaleetako jardinetan, denbora pasa, usoeri ez ezik, ormatxorieri eta belatxingeri ogia eman zezake jaketeo. Eiza kontuan eibartarren pekatuak ez baita ezagutzen. Au sinistu ezin duten zenbait eibartari, erakutsi izan diet metro bat baño urreragotik nere eskuz ateratako argazkiak, ormatxori (kurriloia), karnaba eta beleri. Izan ere, suizarren tza, zibilizazioa au ere bada, eta ez bakarrik erlojuak egitea.

Orain bost urte, Alpes-etara lenengo aldiz egin nuan jira artan, iduritu zitzaidanik atseginetakoa izan zan, Savoia-ko etxeen txukuntasuna. Helvetian ere berdin da. Etxe berriak ere, bertako chalet erara apain egi-

ñiak dirala. Ostatu eta paradorrak berriz zer esanik ere ez, eta mendiko errefujiok berdin. Provenza aldean ere arkitzen eztena. Izan ere, Provenzak jatorrizko etxeak oso itxusiak eta pobreak dira. Orregaitik edo ez dute gorde bertako era. Savoia-koak bikain gordetzen dituzte beren jatorrizko berezitasunak. Etxe berriak ere, beren modernutasunaren barnean, zaarren

tsi? Zertako ez egin etxe berriak ere, beren modernutasunaren barnean, bertako arkitekturen erara? Orretan, arkitektoak eta agintariak dute itza, eta turismoko alkarreak akulluari eragin bearra.

Maiz, etxe batek, molderik berezienak naikoa ditu emengo giroan zartzeko. Oiek lirake ateburuak, egalak, armorak, lata edo trabesak, ostiko ta abar.



Luzerna'ko zubi zarra

antzerako estiluz egiñak daude.

Emen, kontu orretan anarkia oso degu. An zear nenbillela ere Itzierren kamiño kontran paradorizat egin duten kajoi zarrarekin eta Mutrikuko atxikoria paketearekin gogoratzen nintzan.

Nik ez dakit atxikoria pakete ura egin zuan arkitektoak, bere «lana» bukatuta ikusi zuean, nola etzuan bere burua bota gorenge bizitzatik.

Tira, oraindik, norbaitek bera an bizitzeko oien antzerako kajoiak egiten dituean, ezta ezer, orrela erretratzen bai du bere burua. Baña eritxo batean parador edo ostatu bezela ori egiteak ezta parkamenik merezi.

Euskalerrria ikustera datorren turistak, bertako tipismoa arkitu nai du. Alpes-era dijoanak angoa bezela. Eta ez, gutxien uste duan lekuan Texas-eko kajoi bat. Suizarrak eta Prantzia-ko savoiarrak guk baño ezperientzia geiago dute turismoaren gañean eta ez dute egiten orrelako astakeririk. Bertara dijoaztenak Alpes-etako giroa arkitzen dute eta ez beste. Eta guk zergaitik ez Euskalerrria eraku-

Detaile txiki batzuek asko esan nai dute jatorrizko bidetik jarrartzeko.

Suizako aintzira guziak dituzte eskursiñoak egiteko bapozeko erakuntzak. Oieri esker-
rak, turismoa askoz ere geiago baliatzen dute. Beren geltoki eta ordu jakiñak dituzte, eta jende askok bihurtzen du. Gañera, eskerrak orri, bestelango trafikoa arintzen du. Bestela kamiñoak beteagoak ibiliko ziran, eta baita trenak ere.

Bizkai ta Gipuzkoak orren itxas zabalaren jabe izanik, bear bada ez gera naikoa baliatzen. Gure itxasertzetan orren-
beste erri dirala, tren ez autobusez bihurtzeko aukerarik gabe, oraindik ez degu orrelakorik asmatu. Donostiatik Pasairakoa bakarrik degu. Bera ere jarri berri txamar.

Orretariko itxas travesiak antolatuko balira, turismoa geitzeko bide bat litzake. Bide ego-
kia, zenbait erri ere, trenekin eta autobusekin oker daudelarik, beren bizi moldeak ere azkartzeko.

Gure artean ere, nork ez luke naiko uran aldetik gure itxas bazterren egalak ezagutzea? Zenbat arrotz ez lirake etorriko

GURE KONTRAKO LIBURU BILLA

JARRAI DEZADAN EGAÑAKIN

Onek pobrea Euskalerrrian nola bizi zan agertu zuan baita ere Egañak zion gure artean mixeri gorrik etzala. Sanchez Silva andaluzaz zan eta ederki oso esan zion gure gazteizarrak, Euskalerrriko nekazariak, etzituztela beñere egingo Andaluziko nekazari anarkistak egiten ari ziran sualdiak eta oker beltzak.

Baño Egañak zintzo-zintzo, batere malizirik gabe gai onetaz esandakoak Sanchez Silva bezelako señorito andaluz aiengandik burla besterik etzuan ekartzen. Egañak gure bizitzaren berri ondo zekien, baño makiñabat iseka entzun bear izan zuan. Malizirik batere etzuan izan onetan. Gizon izaki. Gaurko zenbait señoritok lengo lepotik daukatela burua, esango genuke.

«Euskaldun mutillak —zion baita ere Egañak— soldatutzara ez joateko daukaten eskubide orrek ez du esan nai bear danian guk gure laguntza ematen ez degunik. Las Navas'en euskaldun mutillak ez al ziran izan gudaldi ura erabaki zutenak? Pavia'n ez al zan berdin gertatu? Sevilla moruari kendu zitzaieanean ez al giñan an euskaldunak?»

«Sanchez Silva jauna, aztuta al zaude Juan de Urbiete, Elkano eta Okendo'kin? Bai: oek entzutean irriparrez ikusten zaitut, esanaz bezela: Arrapatu zaitut. Zeorrek aitortzen dezu zuen mutillak armetan ibilli dirala. Baño nik erantzuten dizut. Bai, baño gure gudaritza Fuero legez egiten zan, eta Fuero agindu au ez du beñere Euskalerrriak ukatu».

«Afrika'ko gerran, Santo Domingo'n bertan berdin jokatu genduan, eta kontu izan berriz ere orrelakoren bat gertatuko balitz, Lersundi jeneralarekin edo onen beste antzeko batekin aurren-
aurren ibiliko lirakela gure mutillak».

Beste au ere esan zuan Egañak :

«Euskaldunak ez dira berekoiak, ez dute bere atsegiña bakarrik nai, baizik baita ere, bere anaiena, eta bere anai abek ez dituzte inoiz ere utzi, laguntasuna bear izan dutenean».

Orduan, Euskalerrria Naparruakin batean, biak, bost egun milla habitante'ra etziran irixten. Asturiano batek, Canga Argüelles ixtori gilleak liburu batian Egañaren esanari oso ondo zetorkiona aaldua zeukan.

Alegia, Napoleone'n kontrako gerran, etzala izan pamilya bat ere ez Euskalerrrian eta ezda ere Naparroan boluntario bat mendian etzaukana. Ez ori bakarrik, Euskalerrriak eta Naparroak bakar-bakarrik Espaniako nazio osoak baño geiago eduki zituztela mutillak armetan gerra orretan.

Au egia izanik, esan al-zitekean eskaldunak berekoiak ziralaz?

«Bai, Sanchez Silva jauna. Zuk gurekiko borondate izan ditek txarrena daukazu. Zuk esan zenduan ementxe lengo batean. Madrilgo liburutegi danak errebitatzen ari izñala gure kontrako liburu billa», bota zion Egañak.

Fede txararren aurka gaitza da benetan.

JOSE DE ARTECHE

edertasun orren aukera izatera? Turistak, bazterrak ondo ikusteko eta ondo ezagutzeko erosotasuna beardu. Eta turistentzat izan ditzakean erosotasun ori,

erritarrentzat ere, geienetan, ongi etortzen da. Aurrerapenak beti dira onak.

J. San Martin



Berna'ko erloju apaltua

GURE KONTSEJUA DA

ZOAZ Anjelita Martínez'era BITXITEGIA

Au da euskaldunen etxea. Bertan arkituko dituzu salgai merkeak eta balio ta iraupen aundikoak.

Plaza de Guipúzcoa, 11

SAN SEBASTIAN

"ZERUKO ARGIA" - Oquendo, 22 - SAN SEBASTIAN

FRANQUEO CONCERTADO N.º 37 - 21